# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**1135**

AGINDUA, 2009ko otsailaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, deialdia egiten zaie Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko proiektuak aurkeztuz sail honekin lan egin nahi duten erakunde publiko eta pribatuei.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lana da, batetik, unibertsitatez kanpoko irakasleen prestakuntza antolatzea, eta, bestetik, begiratzea irakasleek prestatzeko duten eskubidea eta betebeharra baldintza eta kalitate egokietan gauzatzen dela, irakasleek dituzten beharren arabera.

222/2001 Dekretuak, urriaren 16koak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezarri du. Horren 18. artikuluan, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari hurrengo egitekoa ematen zaio, besteak beste: Lanbide-heziketako irakasleen etengabeko prestakuntza-planaren diseinua, aplikazioa eta jarraipena egitea, kontuan hartuta hala lanbide-heziketaren eguneratzea nola espezializazioa.

Horregatik, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren barruan, Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko plan berria egin behar du, unibertsitatekoak ez diren beste irakaskuntzen Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Planaz bestelakoa. Plan berri horretan, alde batetik, prestakuntza-proposamenak egin dira irakasle egokiak bermatzeko, Lanbide Heziketak ondo funtziona dezan. Bestetik, bideak ireki dira prestakuntza errazteko, irakasleek irakaskuntzan sumatzen eta egiten dituzten eskaeren arabera.

Plana erabat definitzeko eta, batez ere, plana martxan jartzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere zerbitzuez gain, zenbait erakunderen laguntza eta parte hartzea behar ditu. Erakunde horiek prestakuntzaren arloan aritzeko gaitasun handia dutela aski frogatuta eduki behar dute; horrek, hain zuzen, bermatuko du planak bere helburuak beteko dituela.

Agindu honen bitartez, planean parte hartu nahi duten erakunde guztiei dei egiten zaie proiektuak aurkez ditzaten, 2009-2010 ikasturteko Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko planaren lehentasunen eta proposamenen berri izanik eta hortik abiatuta. Proiektuak aurkezteko moduak eta epeak jarri dira, bai eta haien

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**1135**

ORDEN de 10 de febrero de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca a Entidades Públicas y Privadas que deseen colaborar con el Departamento a la presentación de proyectos para el desarrollo del Plan de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional.

Corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación ordenar la formación del profesorado de la enseñanza no universitaria y velar para que el derecho y la obligación del profesorado a su formación como docentes puedan realizarla en las condiciones y con la calidad necesarias, de acuerdo a sus necesidades profesionales.

El Decreto 222/2001, de 16 de octubre, establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. En su artículo 18, asigna a la Dirección de Aprendizaje Permanente, entre otras, la función de: diseñar, aplicar y realizar el seguimiento de un Plan de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional, con extensión tanto a la actualización como a la especialización del mismo.

Por esta razón, la Dirección de Aprendizaje Permanente, dentro de la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, debe elaborar un Plan nuevo de Formación del Profesorado de Formación Profesional, diferenciado del Plan de Formación Continua del Profesorado del resto de las enseñanzas no universitarias, en el que, por una parte, presente propuestas de formación para garantizar profesorado competente para el buen funcionamiento de la formación profesional y, por otra, abra cauces suficientes para facilitar la formación de acuerdo a las demandas sentidas y formuladas por el propio profesorado en ejercicio de la docencia.

Para la definición final de este plan y, sobre todo, para su puesta en práctica el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, además de contar con sus propios servicios, precisa de la participación y colaboración de Instituciones y Entidades, cuya competencia en el campo de la formación está plenamente reconocida, lo que supone una garantía para que el plan previsto pueda alcanzar sus objetivos.

Mediante esta Orden se convoca a todas las Instituciones y Entidades interesadas en participar en este plan para que, a partir de la información de las prioridades y propuestas del Plan de Formación del Profesorado de Formación Profesional para el curso 2009-2010, presenten sus proyectos. Se fijan los mecanismos y plazos

artean aukera egiteko prozesua ere, aukeraketarako irizpideen eta arduradunen berri ematea ahaztu gabe.

Hori dela eta, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren proposamenez, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
DEIALDIAREN HELBURUA

***1. artikulua.***– 1.– Legez eratuta dauden erakunde publikoei eta erakunde pribatuei dei egitea, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko lanetan ari badira edo horretarako prest badaude, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan aritzeko proiektuak aurkez ditzaten, Lanbide Heziketako irakasleen etengabeko prestakuntza plana garatzeko, eta, bereziki, 2009-2010 ikasturterako aurreikusita dauden lehentasunezko jarduera eremuak garatzeko.

2.– Helburu hori lortzeko 208.315,00 euroko zenbatekoa ezarriko da. Kopuru hori, dena den, aldatu egin daiteke, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzetik atera daitezkeen aurrekontu-baliabide ez agortuen arabera; betiere, laguntzei buruzko behin betiko ebazpena eman baino lehen. Halako aldaketarik gertatuz gero, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Ebazpenaren bitartez jakinaraziko da.

3.– Deialdi hau, lehiaketa sistemaren bidez ebatziko da.

Deialdi honetara aurkezten diren proiektuek ezin izango dute Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Planak emandako diru-laguntzarik jaso.

***2. artikulua.***– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta, horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

2.– Ezingo dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean daudenak.

***3. artikulua.***– I. eranskinean (Katalogoa) daude zehaztuta zein arlotarako eskaintzen dituen Sailak datorren ikasturtean irakasleak prestatzeko lankidetza-proiektuak. Honako hauek izango dira prestakuntza-jardueren

de presentación de dichos proyectos y los procesos de selección entre los mismos, haciendo públicos los criterios y los responsables de dicha selección.

Por ello, y a propuesta de la Directora de Aprendizaje Permanente,

RESUELVO:

CAPÍTULO I
OBJETO DE LA CONVOCATORIA

***Artículo 1***.– 1.– Convocar a las Entidades Públicas y Privadas legalmente constituidas que realizan, o están dispuestas a realizar actividades de Formación del Profesorado de Formación Profesional en la Comunidad Autónoma Vasca, a la presentación de proyectos de colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para el desarrollo del Plan de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional, y especialmente para el desarrollo de los campos de actuación prioritarios previstos para el curso 2009-2010.

2.– A la consecución de dicho objeto se destinará la cantidad de 208.315,00 euros. Este importe global podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios.

3.– La presente convocatoria se resolverá por el sistema de concurso.

Los proyectos que se presenten a esta convocatoria no podrán recibir subvención por parte del Plan de Formación Continua del Profesorado.

***Artículo 2.***– 1.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a las entidades beneficiarias quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

2.– No podrán ser beneficiarias quienes se hallen incursas en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 3.***– Los campos de actuación en los que el Departamento plantea estos proyectos de colaboración para la formación del profesorado durante el próximo curso son los señalados en el anexo I (Catálogo). Las

hartzaileak: Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako irakasleak, Hezkuntza Ikuskaritzako langileak, Kualifikazioen Euskal Institutuari eta Lanbide Heziketaren Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziari atxikitako langileak, eta Tknikari, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroari, atxikitakoak, eta batzuetan, DBH eta Batxilergoko zenbait ikasgairen irakasleak.

II. KAPITULUA
ESKABIDEAK ETA EPEA

***4. artikulua.***– Erakundeen legezko ordezkariek deialdi honetarako eskabideak aurkeztuko dituzte, ale bitan aurkeztu ere (jatorrizkoa eta kopia, edo jatorrizkoa eta datu horiek berberak Sailak eskuratutako aplikazio informatikoan jasota), II. eta III. eranskinen arabera. Eskabideak aurkezteko lekua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza izango da, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetako edozein.

***5. artikulua.***– Eskabideak aurkezteko epea hilabete izango da, Agindua argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

***6. artikulua.***– 1.– Eskabidearekin batera, III. eranskinean ageri diren datuak aurkeztu beharko dira, ale bitan, laguntzagai den jarduera bakoitzeko; besteak beste, programa zehaztua, eta ikastaro bakoitzean garatuko diren edukiak eta denboralizazioa, Sailaren dokumentu informatikoan aipatzen diren helburu eta metodologia oinarritzat hartuta. Honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

– IFKren fotokopia.

– Zerga-obligazioak beteta eta gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eginda daudela egiaztatzeko agiriak.

– Eskaeragilea erakunde eskatzailearen legezko ordezkaria dela frogatzeko notario-akta edo bestelako agiriak.

– Zinpeko aitorpena, sexu-bereizkeria dela eta administrazio-zehapenik edo zigor penalik jaso ez duela.

2.– Laguntza-eskabideak guztiz beteta bidaltzen ez badira, edota aurreko atalean aipatutako agiriak eskabidearekin batera aurkezten ez badira, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio akatsa konpondu edo beharrezko agiriak aurkezteko. Era berean jakinaraziko zaio, hala egin ezean, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, eta Administrazioak eskabide horri buruzko berariazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 eta 42.1 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

actividades de formación se dirigen al profesorado que imparta ciclos formativos de Formación Profesional, personal de la Inspección de Educación y personal adscrito al Instituto Vasco de Cualificaciones y a la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la FP y a Tknika, Centro de Innovación para la Formación Profesional y en algunos casos al profesorado de algunas asignaturas de ESO y Bachillerato.

CAPÍTULO II
SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

***Artículo 4.***– Las solicitudes para tomar parte en la presente convocatoria, deberán ser presentadas por duplicado (original y una copia u, original y esos mismos datos en aplicación informática proporcionada por el Departamento) conforme a los anexos II-III, por los y las representantes legales de las Entidades en la Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, o en cualquiera de las dependencias indicadas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 5.***– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden.

***Artículo 6.***– 1.– A la solicitud deberá adjuntarse, por duplicado y por cada actividad para la que se solicita subvención, los datos que figuran en el anexo III (entre otros un programa detallado, y temporalización, de contenidos a desarrollar para cada curso en base a los objetivos y metodología que para cada uno de ellos se indican en el documento informático del Departamento), así como la siguiente documentación:

– Fotocopia del CIF.

– Documentación necesaria para la acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de estar al día en los pagos a la seguridad social.

– Acta notarial u otra documentación que acredite que el o la solicitante es representante legal de la entidad solicitante.

– Declaración jurada de no estar sancionado o sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación de sexo.

2.– Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación relacionada en el apartado anterior, se requerirá a la persona solicitante para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esa solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***7. artikulua.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza arduratuko da Agindu honetan arautzen diren laguntzen kudeaketaz.

III. KAPITULUA
HAUTAKETA ETA EBAZTEKO PROZEDURA

***8. artikulua.***– 1.– Batzorde batek aztertuko ditu proposamenak; Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria edo horrek izendatutako ordezkoa izango da batzordeburua. Batzordeko kide izango dira Lanbide Heziketako ikuskari-koordinatzailea, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako lurralde unitateen arduradunak, Lanbide Heziketako zuzendariak izendatutako funtzionario bat, eta Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariak izendatutako funtzionario bat, idazkari arituko dena.

2.– Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eska ditzake proiektuak behar bezala baloratzeko. Aldaketak ere proposa ditzake, aurkeztutako proiektuek euren helburuak beteko dituztela hobeto bermatze aldera.

***9. artikulua.***– I. eranskinean adierazitako eremuetako lankidetza-proiektuak hautatzeko irizpideak eta baremazioa IV. eranskinean daude, eta horiei jarraitu behar zaie.

Diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Ondorioz, hautaketa- eta balorazio-irizpideak erabilita, eskabideak ebaluatzeari ekingo zaio, eta IV. eranskineko baremoaren arabera 50 puntu edo gehiago ateratzen dituzten jarduerak baino ez dira izango laguntza jasotzeko gai.

Diruz lagundutako proiektuak aukeratzeko, berriz, hautaketa- eta balorazio-aldian ateratako puntuazioaren araberako lehentasun-hurrenkerari begiratuko zaio; hortaz, eskatutako kopuruak esleituko dira, puntuazio handiena atera duenetik hasi eta, hala bada, aurrekontu-dotazioa amaitu arte.

***10. artikulua.***– 1.– Batzordeak dagokion proposamena helaraziko dio Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari, zeinak deialdia ebatziko baitu. Ebazpena EHAAn argitaratuko da.

2.– Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak eskariak aurkezteko epea amaitzen denetik hasi eta sei hilabetetan ez badu ebazpena eman, ebatzi ez diren eskariak ukatutzat joko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan ezarritakoa betetzearren.

***Artículo 7.***– El órgano encargado de la gestión de las ayudas reguladas en la presente Orden será la Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

CAPÍTULO III
SELECCIÓN Y PROCEDIMIENTO DE RESOLUCIÓN

***Artículo 8.***– 1.– Las propuestas serán estudiadas por una comisión presidida por la Directora de Aprendizaje Permanente o persona en quien delegue y de la que formarán parte el Inspector Coordinador de Formación Profesional, las personas Responsables de las Unidades Territoriales de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, un funcionario o funcionaria designada por el Director de Formación Profesional, y un funcionario o funcionaria designada por la Directora de Aprendizaje Permanente, quién actuará como secretario o secretaria.

2.– Dicha comisión podrá solicitar los informes técnicos que considere necesarios para una adecuada valoración de los proyectos, así como proponer las modificaciones que garanticen en un mayor grado el que los proyectos presentados cumplan los objetivos planteados.

***Artículo 9***.– La selección de los proyectos de colaboración a subvencionar en los campos señalados en el anexo I, se efectuará de acuerdo con los criterios y baremación que se expresan en el anexo IV.

El procedimiento para su concesión, será el de concurso, y a tal efecto, en aplicación de los criterios de selección y valoración se procederá a la evaluación de las respectivas solicitudes, de modo que únicamente podrán acceder a las ayudas aquellas actividades que alcancen 50 puntos o más en el baremo incluido en el anexo IV.

Para la selección de los proyectos a subvencionar, se estará al orden de prelación resultante de la puntuación obtenida en la fase de selección y valoración, asignando, por orden de mayor puntuación, las cantidades solicitadas, hasta agotar, en su caso, la dotación presupuestaria.

***Artículo 10.***– 1.– La comisión elevará la correspondiente propuesta, y el Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente dictará la pertinente resolución de la convocatoria, que será publicada en el BOPV.

2.– En el caso de que la resolución del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente no hubiese sido publicada en el plazo de seis meses a partir de la publicación de la presente Orden en el BOPV, se podrán entender desestimadas las solicitudes no resueltas, a efectos de lo establecido en el artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta gorako errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

***11. artikulua.***– Ondokoak izango dira onuradunaren betebeharrak:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek ez badiote diru-laguntzari uko egiten, espresuki eta idatziz egin ere, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Diru-laguntza eman duten xede zehatzerako erabiltzea.

3.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, euren zereginetan dihardutela, eska dezaketen informazio guztia ematea, deialdi honen ondorioz jasotako diru-laguntzei buruz.

4.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntza, diru edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri ematea Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari.

5.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri ematea Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari.

IV. KAPITULUA
ERAKUNDE ONURADUNEN EKARPENAK ETA KONPROMISOAK

***12. artikulua.***– 1.– Jardueraren baldintzak, egutegia eta ordutegia, Sailak zehaztuko ditu.

2.– Erakundeek, programaren ondoriozko jarduerak bukatu eta hamabost eguneko epean, parte hartu duten irakasleen zerrenda bidaliko dute, ondokoak zehaztuz: bakoitzaren nortasun-agiria, lantokia eta guztira zenbat ordutan parte hartu duen. Azken akta bat erabiliko dute horretarako, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak jarduera hasterakoan emandako ereduaren araberakoa.

3.– Jarduera bakoitza bukatu eta hilabetearen buruan, erakundeak Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari bidaliko dizkio ondoko agiri hauek:

a) Ekintzari buruzko txostena, arestian aipaturiko Zuzendaritzak kasuan kasurako emango dituen jarraibideen arabera.

b) Ikastaroan erabilitako ikasmaterialen kopia: apunteak edo inprimaturiko materiala, softwarea, eta abar.

4.– Erakunde esleipendunak azken ekintza burutu eta hiru hilabeteko epean, erakundearen organo ego-

3.– Contra dicha resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

***Artículo 11.***– Serán obligaciones del beneficiario:

1.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días a contar del siguiente a la publicación de la resolución de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma se entenderá que ésta queda aceptada.

2.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

3.– Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

4.– Comunicar a la Dirección de Aprendizaje Permanente la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

5.– Comunicar a la Dirección de Aprendizaje Permanente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

CAPÍTULO IV
APORTACIONES Y COMPROMISOS DE LAS ENTIDADES ADJUDICATARIAS

***Artículo 12.***– 1.– Las características de las actividades, calendario y horario las determinará el Departamento.

2.– Las Entidades remitirán en el plazo de 15 días a partir de la finalización de las acciones derivadas del programa, relación de profesorado participante con indicación de su DNI, centro de trabajo y horas totales de participación, según modelo de acta final que aportará la citada Dirección al comienzo de la actividad.

3.– Dentro del mes posterior a la terminación de cada una de las acciones que se realicen la Entidad remitirá a la Dirección de Aprendizaje Permanente la documentación siguiente:

a) Memoria de la actividad, según instrucciones que facilitará en cada caso la Dirección arriba citada.

b) Copia de los materiales didácticos utilizados en el curso: apuntes o material impreso, software, etc.

4.– En el plazo de tres meses a partir de la finalización de la última acción realizada por la Entidad ad-

kiak txostena bidaliko du, jarduera-programa osoaren ekonomia-kitapenari buruzkoa, eta bertan zehaztuko ditu gastuak, sarrerak eta horien jatorria. Erakunde onuradunak, halaber, Administrazioaren esku jarriko ditu jatorrizko frogagiriak, fakturak eta gainerako agiri baliokide edo ordezkoak, emandako diru-laguntzaren kargura egindako gastuak egiaztatzen dutenak.

***13. artikulua.***– A) Erakundeen Ekarpenak:

1.– Behar diren irakasle eta langile egokiak, aipatutako prestakuntza-ekintzak ondo burutzeko.

2.– Prestakuntza-ekintzen kontrola, administrazioa eta jarraipena egiteko eta ziurtatzeko behar diren langile egokiak.

3.– Ekintzak egokiro garatzeko behar diren ekipo, baliabide eta ikasmaterial aproposak eskuratzea.

4.– Ekintzak egiteko lokalak uztea.

5.– Ekintza-programaren bideragarritasuna beti ziurtatuta edukitzeko behar diren diru-baliabideak eskueran izatea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren diru-laguntzen bidez lor daitezkeen baliabideez gain.

B) Erakundeen konpromisoak:

1.– Parte hartzen duten irakasleen bertaratzea eta errendimendua kontrolatzea.

2.– Ekintza bakoitzaren ebaluazioa.

3.– Jarraipena egiteko pertsona bat izendatzea, prestakuntza-jarduerak garatu eta gauzatzeko beharrezkoa den guztiaz etengabe arduratuko dena.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan aritzea ikastaroetara edota prestakuntza-ekintzetara doazen irakasleen ebaluazioan.

5.– Ekintzak burutzeko edo horien ebaluazioa egiteko administrazio-kudeaketarako beharrezko datu guztiak ematea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

***14. artikulua.***– Parte-hartzearen ziurtagiriak.

Ikastaroetan parte hartu dutenek behar bezalako aprobetxamendua erakutsi badute, ziurtagiri bakarra jasoko dute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egina, eta Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak eta erakunde onuradunak sinatuta.

Dagokien deialdian zehaztutako batez besteko denbora bete ez duten pertsonei ez zaie parte hartzearen ziurtagiria emango.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, ez beste inori, egokituko zaio zehaztea ziurtagiria zein par-

judicataria, el órgano correspondiente de la Entidad remitirá informe de la liquidación económica de todo el programa de actuación, con la expresión concreta de los gastos, cantidades ingresadas y procedencia de las mismas. La entidad adjudicataria pondrá a disposición de la Administración, justificantes originales, facturas y demás documentos equivalentes o sustitutivos que acrediten los gastos realizados con cargo a la subvención concedida.

***Artículo 13.***– A) Aportaciones de las Entidades:

1.– Profesorado y personal necesario e idóneo para la correcta realización de las acciones formativas ya mencionadas.

2.– Personal necesario e idóneo para atender y asegurar los aspectos de control, administración y seguimiento del conjunto de acciones formativas.

3.– Puesta a disposición de equipos, útiles y materiales didácticos, necesarios e idóneos, para el adecuado desarrollo de las acciones.

4.– Puesta a disposición de locales para la realización de acciones.

5.– Disponibilidad económica suficiente para garantizar, en todo momento, la viabilidad del programa de acciones, con independencia de los recursos económicos que pueden obtenerse por vía de subvenciones del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

B) Compromisos de las Entidades:

1.– Control de asistencia y de rendimiento del profesorado participante.

2.– Evaluación propia de cada una de las acciones.

3.– Designación de una persona como responsable del seguimiento, quien en todo momento deberá responder de todos los aspectos del desarrollo y ejecución de las actividades de formación.

4.– Colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la evaluación del profesorado asistente a los cursos y/o actividades formativas.

5.– Aportación al Departamento de Educación, Universidades e Investigación de cuantos datos se requieran para la gestión administrativa derivada de la realización de las acciones o para su evaluación.

***Artículo 14.***– Certificación de participación.

Los y las asistentes a cursos que demuestren aprovechamiento, recibirán una única certificación, elaborada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y firmada por la Dirección de Aprendizaje Permanente y la Entidad adjudicataria.

En ningún caso procederá certificar participación a las personas que hayan acudido a menos del porcentaje de tiempo que se establezca en cada convocatoria.

La determinación de a qué participantes se expide la correspondiente certificación recae exclusivamente en

taideri eman behar zaion eta zeini ez; hala ere, kontuan hartuko du ikastaroa eman duen erakundeak sinaturiko akta.

***15. artikulua.***– Onartutako aurrekontu garbiaren % 100 egiten duen diru-laguntza emango die hautatutako proiektuei Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

***16. artikulua.***– 1.– Deialdiaren xede diren prestakuntza-jardueren izaera kontuan hartuta, diru-laguntzaren ordainketa epetan egingo da. Lehenengo epean, benetan burutu diren prestakuntza-ekintzei dagokien guztizkoaren % 60 ordainduko da. Azkenean burutuko diren prestakuntza-jarduera horiek zehazteko, ondokoak hartuko dira kontuan: alde batetik, prestakuntza-ekintzetarako onartu diren irakasleen zerrendak jasoko dituen behin betiko Ebazpena; bestetik, irakasle-eskatzaileen kopurua nahikoa ez izateagatik, prestakuntza-ekintzaren bat burutzen ez bada, horri dagokion gutxitze-ebazpena, 2009ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharrekoa, erakunde bakoitzak azken finean burutuko dituen prestakuntza-jarduerak adieraziko dituena. Lehen epe hori, % 60 egiten duena, bi ebazpen horiek argitaratu ondoren ordainduko da, beraz.

2.– Bigarren ordainketak diruz lagundutako guztizkoaren % 20 egingo du, eta Erakunde onuradunak eman behar dituen prestakuntza-jarduera guztiak bukatutakoan ordainduko da.

3.– Azken epea (% 20) ez da ordainduko harik eta 12.4 artikuluan aipatutako agiriak jaso arte.

4.– Jardueraren batek hasierako matrikulazio-epea bukatutakoan, dauden plazen % 65 estalita ez badu, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariak deuseztatu ahal izango du.

***17. artikulua.***– Diru-laguntza edo laguntza ekonomiko hauek ematea bateragarria da beste edozein laguntza jasotzearekin, berdin dio iturri publikoetatik edo pribatuetatik datorren, salbuespen batekin: Agindu honen 1. artikuluan adierazitako laguntza. Hala ere, xede bererako eskuratutako diru-laguntza guztien zenbatekoak guztizko kostua gaindituz gero, deialdi hau dela eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoari gehiegizko kopuru hori kenduko zaio.

***18. artikulua.***– Erakundeak, ebaluaziorako antola ditzaten barne-mekanismoak gorabehera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kasuan kasurako ezartzen dituen ebaluazio-prozeduren menpe egongo dira.

***19. artikulua.***– Laguntza-baldintzak aldatzea.

Laguntza ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzetako edozein aldatuz gero, laguntzaren helburua betetzeari eusten bazaio noski, edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutik diru-laguntzarik edo laguntzarik jasoz gero, laguntza emateko ebazpena ere

el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, aunque para ello se tenga en cuenta el acta firmada por la Entidad impartidora.

***Artículo 15.***– La subvención del Departamento de Educación, Universidades e Investigación a los proyectos seleccionados será del 100% del presupuesto neto que resulte aprobado por el Departamento.

***Artículo 16.***– 1.– En razón de la naturaleza de las actividades de formación objeto de esta convocatoria, el pago de la subvención será fraccionado, siendo el primer pago del 60% del total correspondiente a las acciones formativas que se lleven definitivamente a cabo. Estas acciones formativas que definitivamente se llevan a cabo se determinan como consecuencia de la publicación de la Resolución definitiva que contenga los listados de profesores y profesoras admitidas a las acciones formativas, habiendo algunas que no se llevarán a cabo debido a un insuficiente número de profesores o profesoras solicitantes y de la correspondiente resolución de minoración, publicar antes del 31 de diciembre de 2009, que exprese cuáles son las acciones formativas que definitivamente llevará a cabo cada Entidad. El primer pago del 60% será abonado tras la publicación de ambas resoluciones.

2.– El segundo pago será el 20% del total subvencionado, y se abonará una vez finalizada la realización de todas las actividades formativas que deba impartir la Entidad adjudicataria.

3.– El último de los pagos (20%) no se hará efectivo hasta la recepción de la documentación mencionada en el artículo 12.4.

4.– La Directora de Aprendizaje Permanente podrá anular la subvención de aquellas actividades que no tengan cubierto el 65% de las plazas disponibles, transcurrido el periodo inicial de matriculación.

***Artículo 17.***– La concesión de las presentes subvenciones o ayudas económicas será compatible con la obtención de cualquier otra, a excepción de la señalada en el artículo 1 de la presente Orden, ya provenga la misma de fondos públicos o privados. No obstante, en el caso de que el importe total de las ayudas obtenidas para un mismo fin sea superior a su coste total, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso el importe de la ayuda concedida en virtud de la presente convocatoria.

***Artículo 18.***– Independientemente de los mecanismos internos de evaluación que articulen las Entidades, éstas se someterán a los procedimientos de evaluación que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación establezca en cada caso.

***Artículo 19.***– Alteración de las condiciones de ayuda.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, siempre que se entienda cumplido el objetivo de ésta, y en su caso, la obtención de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada, podrá dar lugar a

alda liteke, betiere diru-laguntzaren arauak onuradun izateko ezarri dituen betekizunak zaindurik.

***20. artikulua.***– Diru-laguntzaren onuradunak diru-laguntza erabiltzen ez badu eskatu eta eman zen berariazko helbururako; diru-laguntza ekarri duen jarduera burutzen ez badu; diru-laguntza zertarako eskatu zuen, horretarako erabili duela justifikatzen ez badu; edo, oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak (1998ko urtarrilaren 19ko EHAAn argitaratua) bere VI. tituluan jasotako betebeharrak, edota Agindu honetan edo emate-ebazpenean ezarritakoak betetzen ez baditu, izendatu eta eman zaion dirua itzuli beharko du, baita aplikagarriak gerta daitezkeen legezko interesak ere. Hori egiteko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituko zaio, Dekretu horrek, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen erregimen orokorra arautu, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta eginbeharrak finkatu ditu. Bidezko izan daitezkeen gainontzeko akzioak ere erabil daitezke. Diru-zenbateko horiek diru publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Prozedura-arloan agindu honetan aurrez ikusten ez denari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

***Bigarrena***.– Abenduaren 13ko 15/1999 Legean, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko Legea, aurreikusitakoaren arabera, deialdi honen barruan sartu diren prestakuntza-ekintzen partaidetzak berekin ekarriko ditu legean aipatzen diren aipamenak.

Datuak babesteko gaian indarreko araudiaren mende geratuko da deialdi honen barruan aurkeztutako eskaeretan jasotako informazioa.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak xedatzen duena betez, interesatuak, dirulaguntza-eskaera betetzearen bidez, eskaera horretan adierazitako datuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren fitxategi informatizatuetara gehitzeko baimena ematen du. Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzan (Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzan), Donostia kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz, praktikan jarri ahal dira datu horietara iristeko, zuzentzeko, ixteko eta horien kontra jotzeko aipatutako Legeak agertzen dituen eskubideak.

la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos establecidos por la norma subvencional para ser beneficiario de ésta.

***Artículo 20.***– En el supuesto de que la entidad beneficiaria no utilice la subvención para el destino específico para el que se solicitó y concedió; no realice la actuación que dio origen a la subvención; no justifique su aplicación a los fines determinados para los que se interesó o, en general, incumpla las obligaciones establecidas en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre (BOPV de 19 de enero de 1998) por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, en esta Orden o en la resolución de concesión, vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida, además de los intereses legales que resultasen de aplicación, siguiendo el procedimiento establecido al efecto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participen en su gestión, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– En todo lo no previsto en materia de procedimiento por la presente Orden, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda***.– De acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, la participación en las acciones formativas acogidas a la presente convocatoria comportará las autorizaciones a que se refiere dicha ley.

La información contenida en las solicitudes presentadas al amparo de la presente convocatoria quedará sometida a la normativa vigente en materia de protección de datos.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, la cumplimentación de la solicitud de ayuda implica la autorización del interesado o de la interesada para la incorporación de los datos consignados en ella a los ficheros informatizados del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos en la mencionada Ley se pueden ejercitar ante la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente (Dirección de Aprendizaje Permanente). C/ Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

***Hirugarrena***.– EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Agindu honek.

***Laugarrena***.– Administrazio bidea agortzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hileko epearen barruan, agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 10a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## I. ERANSKINA (KATALOGOA)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 2009-2010 aldirako Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren barruan, eranskin honetan azaltzen diren jarduerak proposatu ditu, prestakuntza-erakundeek eman ditzaten. Jarduera bakoitzaren egitaraua eta baldintzak agiri batean daude jasota, euskarri informatikoan. Agiri hori Etengabeko Ikaskuntzako. Zuzendaritzan edo Hezkuntzako lurralde ordezkaritzetan (Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako lurralde-arduradunei) eska daiteke.

Agindu honek prestakuntza-jarduerak ditu xede; hain zuzen ere, irakaskuntza-gaitasunak arlo zehatzetan hobetzeko (areagotu, gaurkotu edo sakondu) asmoz egiten direnak. Helburua da irakasleei eskaintzea euren ezaguera eta gaitasunak areagotzea edo gaurkotzea, arlo edo gai baten atal edo ikuspegiren bat kontuan hartuta, edota irakaskuntzarekin zerikusia duten lanak. Ikastaro horiek erreferentzia argia egin behar diote bertan lantzen diren ezagueren helburu didaktikoari.

Izaera bateratuari eutsiz eman daitezke, edo, bestela, moduluetan banatuta. Modulu bakoitzak, dena den, inoiz ez du 20 ordu baino gutxiago iraungo.

2009-2010 ikasturtean zehar erakundeekin elkarlanean lehentasunez antolatu nahi diren ikastaroak hurrengoak izango dira:

Gaurkotze/Sakontze Teknologikoa, hurrengo lanbide arloetan eta sailetan:

***Tercera***.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

***Cuarta***.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2009.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## ANEXO I (CATÁLOGO)

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación propone como actividades de formación impartidas por Entidades de formación dentro del Plan de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional 2009-2010 las que figuran en este anexo. El programa y las condiciones de cada una de estas actividades constan en un documento en soporte informático que podrá ser solicitado a la Dirección de Aprendizaje Permanente, y a los Responsables Territoriales de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente en las Delegaciones Territoriales de Educación.

Son objeto de esta Orden las actividades de formación, que tengan como finalidad la mejora (aumento, actualización o profundización) de las competencias docentes en cuestiones específicas. El objetivo es facilitar al profesorado la actualización o aumento de sus conocimientos y destrezas referidos a una parte o un aspecto de un área o materia, o en tareas relacionadas con su función docente. Estos cursos deberán tener una referencia clara a la finalidad didáctica de los conocimientos que traten.

Podrán impartirse con carácter unitario o subdividirse en módulos, que nunca podrán tener una duración inferior a 20 horas.

Los cursos que se desean llevar a cabo en colaboración con las Entidades durante el curso 2009-2010 serán, preferentemente, los siguientes:

Actualización/Profundización Tecnológica en las siguientes familias profesionales y áreas:

Arloa: Administrazioa, Merkataritza eta Marketina.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Berritasun Kontableak (IKBak) eta Fiskalak | Gaztelania | On Line | 20 |
| Fiskalitatea: errenta-elkarteak -BEZ-toki-zergak | Gaztelania | Araba | 20 |
| Nazioarteko merkataritza | Gaztelania | On Line | 30 |
| Garraioaren planifikazioa | Gaztelania | On Line | 30 |
| Giza baliabideen kudeaketa. Sarea | Gaztelania | On Line | 20 |
| Animazioa saltokian | Gaztelania | On Line | 20 |

Arloa: Elektrizitatea eta Elektronika.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Siemens S7 automaten programazioa. Oinarrizkoa | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Siemens S7 automaten programazioa. Aurreratua | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Industria komunikazioak. ETHERNET eta PROFINET estandarrak | Euskara | Gipuzkoa | 40 |
| Industria komunikazioak. ETHERNET eta PROFINET estandarrak | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Motorren erregulazioa. Abiaduraren aldatzaileak | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Motorren erregulazioa. Abiaduraren aldatzaileak | Gaztelania | Gipuzkoa | 40 |
| Antena Instalazioak muntatzea eta mantentzea | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Telefonia eta telekomunikazioetako instalazioak muntatzea eta mantentzea | Gaztelania | Gipuzkoa | 40 |
| Energia Berriztagarriak | Euskara | Gipuzkoa | 40 |
| Energia Berriztagarriak | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Instalazio domotikoak. BUS EIB | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Panasoniceko TDA-100 eta PABX TDA-200 telefono sistema instalatzea eta mantentzea | Gaztelania | Bizkaia | 20 |
| Soldadura elektronikako ikastaro praktikoa SMD | Gaztelania | Bizkaia | 20 |
| LTDko Goiburuak | Gaztelania | Bizkaia | 30 |
| Satelite, lur eta kable bidezko telebista digitala | Euskara | Gipuzkoa | 32 |
| Satelite, lur eta kable bidezko telebista digitala | Gaztelania | Bizkaia | |
| Pcen konfigurazioa, mantenua eta eguneratzea | Gaztelania | Bizkaia | 30 |
| Ekipo termiko zentralizatuak instalatzea eta mantentzea | Gaztelania | Gipuzkoa | 30 |

Arloa: Fabrikazio Mekanikoa.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Makinak mantentzea eta matxura elektriko eta mekanikoak antzematea | Gaztelania | Gipuzkoa | 30 |
| Automatismo neumatiko eta elektroneumatikoak | Gaztelania | Gipuzkoa | 30 |
| Mekanikarientzat elektrizitatea | Euskara | Gipuzkoa | 30 |
| CATIA V 3D Modelaketa, planoak eta multzoak | Gaztelania | Gipuzkoa | 50 |
| Erreminta mekanikoak hautatzea, errendimendu handiko mekanizatua-ren eragiketak eta estrategiak | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Ordenagailuz lagundutako fabrikazioa (CAM UNIGRAPHICS + makina-mekanizatua) | Gaztelania | Gipuzkoa | 40 |
| 5 ardatzetan mekanizazioa (3+2 ardatz) Heidenhain-ekin | Euskara | Gipuzkoa | 20 |
| CNC, Heidenhain 530 + Smart bidez programatu eta erabili | Gaztelania | Gipuzkoa | 40 |
| Saiakuntzen eta Tratamendu Termikoen ikastaro praktikoa | Gaztelania | Bizkaia | 20 |
| CNC, Fanuc (Tornua) bidez programatu eta erabili | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Mozteko erremintak zorrozteko ikastaroa | Gaztelania | Bizkaia | 20 |
| Erremintak eta mozteko baldintzak aukeratzea tornurako eta fresatzeko makinarako | Gaztelania | Gipuzkoa | 30 |
| Unigraphics NX CAD 3D | Gaztelania | Bizkaia | 40 |

Arloa: Informatika.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Linux. Oinarrizkoa | Euskara | Gipuzkoa | 40 |
| Linux. Oinarrizkoa | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Linux Aurreratua | Euskara | Gipuzkoa | 40 |
| Linux Aurreratua | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Visual-Basic-net | Gaztelania | Bizkaia | 40 |
| Windows 2007 Server | Euskara | Gipuzkoa | 40 |
| SQL SERVER 2005 | Gaztelania | Bizkaia | 40 |

Arloa: Automozioa.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Gasolinazko eta Diesel Motorraren diagnosia eta autodiagnosia (Equipos multimarca) | Gaztelania | Bizkaia | 24 |
| Gasolina zuzenean injektatzeko sistema/ Motor hibridoen hastapenak | Gaztelania | Bizkaia | 20 |
| Gasolina zuzenean injektatzeko sistema/ Motor hibridoen hastapenak | Euskara | Gipuzkoa | 20 |
| Segurtasuna eta Erosotasuna: GPS, Alarmak, Soinua | Gaztelania | Gipuzkoa | 20 |
| Transmisio sistemak eta martxa-kutxa automatikoak | Gaztelania | Gipuzkoa | 20 |
| UCES Birprogramatzea | Gaztelania | Gipuzkoa | 20 |
| Bankadak, neurketa eta tentaketa | Gaztelania | Bizkaia | 24 |
| Elementu metalikoak osatzea | Euskara | Gipuzkoa | 24 |
| Soldadura sistemak ibilgailuak mantentzeko | Euskara | Gipuzkoa | 24 |
| Azalerak prestatu eta berdintzeko prozesua | Gaztelania | Gipuzkoa | 24 |
| Pintatzeko tresnak eta metodoak | Gaztelania | Gipuzkoa | 24 |
| Autoak pertsonalizatzea (Aerografía) | Gaztelania | Gipuzkoa | 24 |

Arloa: Kimika.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Bioteknologia | Gaztelania | Bizkaia | 20 |

Arloa: Osasuna.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Odontoestomatologiako ikastaro aurreratua | Gaztelania | Bizkaia | 30 |
| Ospitalean garbitu, desinfektatu eta esterilizatu | Gaztelania | Bizkaia | 24 |
| Ospitalean garbitu, desinfektatu eta esterilizatu | Euskaraz | Gipuzkoa | 24 |
| Hondakin Sanitarioen kudeaketa | Gaztelania | Bizkaia | 24 |
| Zainketa aringarriak | Gaztelania | Bizkaia | 30 |
| TBE: Erizaintza laguntzaileentzako farmakologia | Gaztelania | Bizkaia | 24 |
| Laborategiko oinarrizko teknikak: hastapenak | Gaztelania | Gipuzkoa | 24 |
| Sukaldaritza praktikak: oinarrizko ikastaroa | Gaztelania | Gipuzkoa | 24 |

Zeharkako Prestakuntza.

| Ikastaroaren izena | Hizkuntza | Lurraldea | Ordu-kopurua |
|---|---|---|---|
| Lan arriskuen prebentzioa | Gaztelania | On-Line | 50 |
| Lehen sorospenak | Gaztelania | Bizkaia | 30 |
| Lehen sorospenak | Gaztelania | Gipuzkoa | 30 |
| Zeinu-mintzaira | Gaztelania | Bizkaia | 30 |
| Zeinu mintzaira | Gaztelania | Gipuzkoa | 30 |
| Moodle Plataforma | Gaztelania | Araba | 20 |
| Moodle Plataforma | Gaztelania | Bizkaia | 20 |
| Heziketa zikloaren azken proiektuaren kudeaketa | Gaztelania | Bizkaia | 20 |

*Familia: Administración - Comercio y Marketing.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Novedades Contables (NIC'S) y Fiscales* | *Castellano* | *On Line* | *20* |
| *Fiscalidad: Renta-Sociedades-IVA-Impuestos Locales* | *Castellano* | *Álava* | *20* |
| *Comercio Internacional* | *Castellano* | *On Line* | *30* |
| *Planificación del transporte* | *Castellano* | *On Line* | *30* |
| *Gestión de Recursos Humanos. RED* | *Castellano* | *On Line* | *20* |
| *Animación en el punto de venta* | *Castellano* | *On Line* | *20* |

*Familia: Electricidad y Electrónica.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Programación de autómatas Siemens S7. Básico* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Programación de autómatas Siemens S7. Avanzado* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Comunicaciones Industriales Standares ETHERNET y PROFINET* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Comunicaciones Industriales Standares ETHERNET y PROFINET* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Regulación de motores. Variadores de velocidad* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Regulación de motores. Variadores de velocidad* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Montaje y Mantenimiento de Instalaciones de Antenas* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Montaje y Mantenimiento de Instalaciones de Telefonía y Telecomunicaciones* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Energías Renovables* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Energías Renovables* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Instalaciones Domóticas. BUS EIB* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Instalación y mantenimiento sistema tlf real PABX TDA-200 y TDA-100 de PANASONIC* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |
| *Curso práctico de soldadura electrónica SMD* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |
| *Cabeceras de TDT* | *Castellano* | *Bizkaia* | *30* |
| *TV Digital por Satélite, Terrestre y Cable* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *32* |
| *TV Digital por Satélite, Terrestre y Cable* | *Castellano* | *Bizkaia* | |
| *Configuración Mantenimiento y Actualización de PCs* | *Castellano* | *Bizkaia* | *30* |
| *Regulación y Control de equipos térmicos centralizados* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *30* |

*Familia: Fabricación Mecánica.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Mantenimiento y localización de averías eléctricas y mecánicas en máquinas* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *30* |
| *Automatismos neumáticos y electroneumáticos* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *30* |
| *Electricidad para mecánicos* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *30* |
| *CATIA V 3D Modelado, Planos y Conjuntos* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *50* |
| *Selección de utillajes mecánicos, operaciones y estrategias de mecanizado de alto rendimiento* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Fabricación asistida por ordenador (CAM Unigraphics + Mecanizado en Máquina)* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *5 ardatzetan mekanizazioa (3+2 ardatz) Heidenhain-ekin* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *20* |
| *Programación y manejo con CNC, Heidenhain 530 + Smart* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Curso práctico de Ensayos y Tratamientos Térmicos* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |
| *Programación y manejo con CNC, Fanuc (Torno)* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Curso de afilado de herramientas de corte* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |
| *Selección de herramientas y condiciones de corte para torno y fresadora* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *30* |
| *Unigraphics NX CAD 3D* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |

*Familia: Informática.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Linux Básico* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Linux Básico* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Linux Avanzado* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Linux Avanzado* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *Visual Basic.net* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |
| *Windows 2007 Server* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *40* |
| *SQL SERVER 2005* | *Castellano* | *Bizkaia* | *40* |

*Familia: Automoción.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Diagnosis y autodiagnosis del motores diesel y gasolina (Equipos multimarca)* | *Castellano* | *Bizkaia* | *24* |
| *Sistemas de inyección directa de gasolina/ Introducción a motores híbridos* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |
| *Sistemas de inyección directa de gasolina/ Introducción a motores híbridos* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *20* |
| *En seguridad y confortabilidad: GPS, alarmas, sonido, telefonía, faros de xenon* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *20* |
| *Sistemas de transmisión y cajas de cambio automáticas* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *20* |
| *Reprogramación de UCEs* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *20* |
| *Bancadas, medición y estirado* | *Castellano* | *Bizkaia* | *24* |
| *Conformación de elementos metálicos* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *24* |
| *Sistemas de soldadura en el mantenimiento de vehículos* | *Euskara* | *Gipuzkoa* | *24* |
| *Procesos de preparación e igualación de superficies* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *24* |
| *Equipos y métodos de pintado* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *24* |
| *Personalización del automóvil (Aerografía)* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *24* |

*Familia: Química.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Biotecnología* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |

*Familia: Sanidad.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Curso avanzado en odontoestomatología* | *Castellano* | *Bizkaia* | *30* |
| *Limpieza desinfección y esterilización en el medio hospitalario* | *Castellano* | *Bizkaia* | *24* |
| *Limpieza desinfección y esterilización en el medio hospitalario* | *Euskaraz* | *Gipuzkoa* | *24* |
| *Gestión de residuos sanitarios* | *Castellano* | *Bizkaia* | *24* |
| *Cuidados paliativos* | *Castellano* | *Bizkaia* | *30* |
| *TBE: Farmacología para auxiliares de enfermería* | *Castellano* | *Bizkaia* | *24* |
| *Técnicas básicas de laboratorio: iniciación al laboratorio* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *24* |
| *Curso básico de prácticas de cocina* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *24* |

*Formación Transversal.*

| *Título del curso* | *Idioma* | *Territorio* | *N.º horas* |
|---|---|---|---|
| *Prevención de Riesgos Laborables* | *Castellano* | *On-Line* | *50* |
| *Primeros auxilios* | *Castellano* | *Bizkaia* | *30* |
| *Primeros auxilios* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *30* |
| *Lenguaje de signos* | *Castellano* | *Bizkaia* | *30* |
| *Lenguaje de signos* | *Castellano* | *Gipuzkoa* | *30* |
| *Plataforma Moodle* | *Castellano* | *Álava* | *20* |
| *Plataforma Moodle* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |
| *Gestión Proyecto Final de un ciclo Formativo* | *Castellano* | *Bizkaia* | *20* |

## II. ERANSKINA

### ESKABIDE-ORRIA

Erakundearen izena: ..........................................................................................................................................
IFK zk. ..............................................................................................................................................................
Helbidea: ...........................................................................................................................................................
Posta-kodea: ........................................................ Herria: ............................................................................
Lurraldea: ...................................................... Telefonoa: ............................................................................
faxa: .............................................................................................................................. posta elektronikoa:
Legezko ordezkaria: ..........................................................................................................................................
Prestakuntza-ekintzen programaren koordinatzailea: ...................................................................................

Sarrera-erregistroko zigilua eta data:

Bidalitako agiriak:
– IFK txartelaren kopia.
– Zerga-obligazioak bete eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egin direla egiaztatzeko agiriak.
– Eskatzailea eskaera egiten duen erakundearen legezko ordezkaria dela egiaztatzeko notario-akta edo bestelako agiriak.
– III. eranskina eskatutako jarduera bakoitzerako.

| Kodea | Prestakuntza- ekintzaren izena | Hizkuntza | Orduak | Hasiera | Amaiera | Herria | Aurrekontua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

Tokia, eguna, sinadura eta entitatearen zigilua.

Sinatzaileak honako hau adierazten du: erakundeak ez duela administrazio-zehapenik edo zigor penalik jaso, sexua dela eta bereizkeria egiteagatik.

ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ZUZENDARIA.

III. ERANSKINA (aurrealdea)

(Bi aletan aurkezteko).
(eskabide-orrian jarritako ekintza bakoitzeko bat bete behar da)

Erakundearen kodea
□□□□□
(Administrazioak bete beharrekoa)

Ekintzaren kodea
□□□□□
(I. eranskinean aipatutako dokumentuan adierazitakoa)

Prestakuntza-ekintzaren izena:
.......................................................................................................................................................................................

1.– Datu ekonomikoak:
Burutzeko aurreikusitako kostua, guztira: ......................................................................................................... euro

Aurreikusitako kostu guztia, gutxi gorabehera banatuta:
Langileen gastuak: ......................................................................................................................................... euro
Joan-etorriak eta egonaldiak: ......................................................................................................................... euro
Gastu materialak: .......................................................................................................................................... euro
Antolaketako beste zenbait gastu: ................................................................................................................. euro

Erakunde eskatzailearen beraren diru-ekarpena:
............................................................................................................................................................ euro
Beste diru-laguntza batzuk: ............................................................................................................................ euro

Zehaztu erakunde diru-emailea/k eta zenbatekoa/k.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskaturiko diru-laguntza: ............................................................. euro

2.– Erakundeak proposatzen dituen aldaketak, I. eranskinaren lehenengo lerroaldean aipatzen den txostenak ikasturte honetarako duen informazioaren ingurukoak, edota Sailak aurreikusitako ezaugarrien onarpen zehatza:

2.1.– Orduak, plazak, hizkuntza, egunak, ordutegiak, tokia,... (1)

2.2.– Jarduera honetarako aurrez ikusi diren parte-hartzaileak: irakasten duten modulu edo heziketa-zikloaren arabera; aurreko ezagupenen arabera,..........................; ikastaroan parte hartzeko baldintzak eta lehentasunak.

2.3.– Prestakuntza-jardueraren diseinua: aldiak eta moduluak,...

3.– Programa.

Sailaren dokumentu informatikoan (I. eranskina - katalogoa euskarri informatikoan) aipatzen diren helburu eta xedeetan oinarrituta, jardueraren programa osoa eta agiri eta materialen aurrerapen bat garatu eta erantsiko du erakundeak, eta prestakuntza jasotzen duten irakasleen eskura jarriko ditu. ON LINE diren ikastaroetan sarbidea ere erantsiko du.

(1) Puntu hau eta hurrengoak «aurreikusiak» eta «aldatuak» bezala agertu beharko lirateke ikastaroen fitxan.

III. ERANSKINA (atzealdea)

Hizlarien proposamena, ekintzaren zuzendaria adieraziz.

Zuzendaria, ekintzaren zuzeneko arduraduna:
......................................................................................................................................................................................................................

| NAN | 1. abizena | 2. abizena | Izena | Mendekotasuna (1) | Jatorria (1) | Egoera (3) | Orduak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |

Hizlariak (zuzendaria izan ezik):

| NAN | 1. abizena | 2. abizena | IZENA | Mendekotasuna (1) | Jatorria (1) | Egoera (3) | Orduak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

(1) Mendekotasuna: erakundearen beraren langileak direnean ENT adieraziko da, eta langilea autonomoa edo beste erakunde batekoa denean EZ ENT.
(2) Jatorria: hizlariaren ohiko lantokia da. Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean EAE adieraziko da, osterantzean EZ EAE.
(3) Egoera: dagozkion letra eta zenbakia adieraziko dira: A1: unibertsitatez kanpoko irakasleak, sare publikoa; A2: unibertsitateko irakasleak, sare publikoa; A3: bestelakoak, herri-administrazioa; B1: unibertsitatez kanpoko irakasleak, sare pribatua; B2: unibertsitateko irakasleak, sare pribatua; B3: bestelakoak, enpresa pribatua edo autonomoak.
(4) Hizlari bakoitzak prestatzaileen prestakuntzan duen esperientzia ere jarri behar da: irakatsitako ikastaroak (orduak, gaiak), eta talde hartzaileak.

## IV. ERANSKINA

### BAREMOA (1)

– B1.– Lankidetza-proiektuaren balorazio globala, 30 puntura arte:
  Katalogoaren baldintzak betetzea, ondokoak direla eta: orduak, plaza-kopurua, lurraldea.
  Ekarritako materiala.
  Egutegia eta ikastaroa emateko tokia.
– B2.– Egitura, edukiak eta metodologia, 20 puntura arte:
  Katalogoan proposatutako helburuei eta metodologiari egokitzea edukiak.
  Zati teoriko eta praktikoaren arteko integrazioa.
  Egitura koherentea (2).
  Helburuak lortzeko metodologia egokia.
– B3.– Pertsona-, material- eta antolaketa-bermeak, 30 puntura arte:
  Eskola-emaileen curriculumak.
  Zati teorikoa emateko erabilitako bitartekoak: programa gaurkotuak, eredu errealak, hartzaileentzako eskuliburua, On Line ikastaroetan sarbidea... (3).
  Zati praktikoa emateko erabilitako bitartekoak: makineria, toki-kop., lokalak, iraupena, softwarea, sarean dauden ordenagailu-kopurua,…
– B4.– Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa, 20 puntura arte:
  Ikasketari plazako eta orduko prezio unitarioaren arabera.
  Eskolak emateko hizkuntza.

Oharrak:
(1). Baremoaren azpiatalak baloratu ahal izateko beharrezko dokumentazioa ekartzen ez bada, zero puntu emango zaie.
(2) III. eranskinean jasotzen den bezala, erakundeak prestatu behar duen ikastaro-programaren edukien ordu-banaketa zehaztu (denboralizazioa).
(3) Erabiliko den eskuliburua ekarri, eta halakorik ezean, eskuliburuaren gida edo unitate didaktikoren bat.

*ANEXO II*

*IMPRESO DE SOLICITUD*

*Nombre de la Entidad:* ..................................................................................................................................................
*CIF* ..........................................................................................................................................................................
*Dirección:* ................................................................................................................................................................
*Código postal:* ................................................. *Localidad:* ......................................................................................
*Territorio:* ....................................................... *Teléfono:* .......................................................................................
*Fax:* ..................................................... *correo electrónico:* .......................................................................................
*Representante legal:* ..................................................................................................................................................
*Coordinador o coordinadora de las acciones de formación:* ..........................................................................................

*Sello y fecha de registro de entrada.*

*Documentación que se adjunta:*
*– Fotocopia tarjeta de CIF.*
*– Documentación necesaria para acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de los pagos a la seguridad social.*
*– Acta notarial u otra documentación que acredite que el o la solicitante es representante legal de la entidad solicitante.*
*– Anexo III para cada una de las actividades solicitadas.*

| *Código* | *Denominación de la actividad formativa* | *Idioma* | *Horas* | *Inicio* | *Final* | *Localidad* | *Presupuesto* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

*Lugar, fecha, firma y sello de la Entidad.*

*El o la firmante declara que la Entidad no está sancionada administrativamente o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo.*

*SRA. DIRECTORA DE APRENDIZAJE PERMANENTE.*

*ANEXO III (anverso)*

*(A presentar por duplicado).*
*(Se debe cumplimentar uno por cada actividad relacionada en el impreso de solicitud).*

*Código entidad*
☐☐☐☐☐
*(A rellenar por la Administración)*

*Código de la acción*
☐☐☐☐☐
*(El indicado en el documento citado en el anexo I)*

*Título de la actividad de formación:*
..........................................................................................................................................................................

*1.– Datos económicos:*
*Coste total previsto para la realización:* .......................................................................................................... *euros*

*Desglose aproximado del costo total previsto:*
*Gastos de personal:* .......................................................................................................... *euros*
*Desplazamientos y estancias:* .......................................................................................................... *euros*
*Gastos materiales:* .......................................................................................................... *euros*
*Otros gastos organizativos:* .......................................................................................................... *euros*

*Aportación económica de la propia entidad solicitante:*
.......................................................................................................... *euros*
*Otras subvenciones:* .......................................................................................................... *euros*

*Detallar organismo/s subvencionador/es e importe/s*
*Subvención solicitada al Departamento de Educación, Universidades e Investigación:* .......................................... *euros*

*2.– Modificaciones que propone la entidad en relación con la información incluida para este curso en el documento citado en el primer párrafo del anexo I, y/o aceptación explícita de las características previstas por el Departamento.*

*2.1.– Horas, plazas, idioma, fechas, horarios, lugar,... (1).*

*2.2.– Destinatarias y destinatarios previstos como participantes de esta actividad: por módulo o ciclo formativo que impartan; por los conocimientos previos, ..........................................; requisitos y prioridades para participar en el curso.*

*2.3.– Diseño de la acción formativa: fases y módulos,...*

*3.– Programa.*

*En base a los objetivos y metodología que se indican en el documento informático del Departamento (anexo I-Catálogo en soporte informático), la entidad desarrollará y adjuntará un programa completo de la actividad y un avance de la documentación y materiales que pondrá a disposición del profesorado asistente a la formación. En el caso de cursos On-Line deberán de facilitar la dirección o permiso para acceder a la plataforma.*

*(1) Este punto y los siguientes deberían estar reflejados en la ficha del curso como «previstos» y «modificados».*

*ANEXO III (reverso)*

*Propuesta de ponentes con indicación del Director o Directora de la acción.*

*Director o Directora (Responsable directo de esta actividad formativa):*
.......................................................................................................................................................................... .

| *DNI* | *1. apellido* | *2. apellido* | *Nombre* | *Dependencia (1)* | *Procedencia (2)* | *Situación (3)* | *Horas* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |

*Ponentes (excluido el Director o la Directora):*

| *DNI* | *1. apellido* | *2. apellido* | *nombre* | *Dependencia (1)* | *Procedencia (2)* | *Situación (3)* | *Horas* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

*(1) Dependencia: se indicará ENT cuando se trate de personal de la propia entidad, y NO ENT cuando se trate de personal autónomo o perteneciente a otra entidad.*
*(2) Procedencia: se refiere al lugar habitual de trabajo del ponente. Se indicará CAV cuando sea la Comunidad Autónoma Vasca y NO CAV cuando sea fuera de la misma.*
*(3) Situación: se indicarán la letra y cifra que corresponden. A1: docente no universitario, red pública; A2: docente universitario, red pública; A3: otros, administración pública; B1: docente no universitario, red privada; B2: docente universitario, red privada; B3: otros, empresa privada o autónomos.*
*(4) Se incluirá, separadamente, la experiencia de cada ponente en formación de formadores y formadoras: cursos impartidos (horas, temas), colectivos destinatarios.*

*ANEXO IV*

*BAREMO (1)*

– *B1.– Valoración global del proyecto de colaboración hasta 30 puntos:*
*Cumplir condiciones del catálogo relativas a: horas, plazas, territorio,…*
*Material aportado.*
*Lugar de impartición y calendario.*
– *B2.– Estructura, contenidos y metodología hasta 20 puntos:*
*Adecuación de los contenidos a los objetivos y metodología propuestos en el catálogo.*
*Integración entre la parte teórica y la práctica.*
*Estructura coherente (2).*
*Metodología apropiada para la consecución de los objetivos.*
– *B3.– Garantías humanas, materiales y organizativas hasta 30 puntos:*
*Currículo de los impartidores e impartidoras.*
*Medios empleados para la impartición de la parte teórica: actualización de programas, modelos reales, manual para los y las asistentes,… (3).*
*Medios empleados para la impartición de la parte práctica: maquinaria, n.º de puestos, locales, duración, software, ordenadores en red,…*
– *B4.– Cuantía de la subvención solicitada hasta 20 puntos:*
*Según coste unitario por hora y plaza de cursillista.*
*Idioma de impartición.*

*Observaciones:*
*(1) Cuando no se aporte la documentación necesaria para valorar los diferentes subapartados del baremo, éstos serán puntuados con cero puntos.*
*(2) Especificar distribución horaria de los contenidos (temporalización) que conforman el programa del curso que la Entidad debe elaborar, tal y como se recoge en el anexo III.*
*(3) Aportar manual a utilizar y si no es posible, guía del manual, o alguna unidad didáctica. En los cursos On Line facilitar el acceso a la plataforma.*